



2023KO URTARRILAREN 26KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko urtarrilaren hogeita seian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Eneritz Miranda Muxika, Felix Urkola Iriarte, Beni Goñi Padura, Iñaki Estensoro Sarasola, Joxemai Ormazabal Sukia, Josu Sarriegi Zumarraga, Marije Insausti Onda, Maialen Amundarain Irizar eta Ion Garmendia Iturbe.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu dira 2022ko azaroaren 24an egindako ohiko bilkurako akta, eta 2022ko abenduaren 15ean egindako ez-ohiko bilkurako akta, idatzita dauden moduan onartu direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- KIROLDEGIA HANDITZEKO LANEN 1., 2., 3., 4., 5., ETA 6. OBRA EGIAZTAGIRIAK.-

Joxemiel Barandiaran kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten Jovino Martinez Sierra arkitekua eta Alberto Olabarrieta Etxeberria arkitekto teknikoak lan hauen sei obra egiaztagiri egin dituzte.

Lehen obra egiaztagiria HOGEITA SEI MILA LAUREHUN ETA HOGEITA ZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA HIRU ZENTIMOKoa (26.427,63 €) da, BEZa barne.

Bigarren obra egiaztagiria HIRUROGEITA BAT MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HIRU EURO ETA HOGEITA HEMEZORTZI ZENTIMOKoa (61.923,38 €) da, BEZa barne.

Hirugarren obra egiaztagiria EHUN ETA BERROEGITA BEDERATZI MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMA ZAZPI EURO ETA HEMEZORTZI ZENTIMOKoa (149.397,18 €) da, BEZa barne.

Laugarren obra egiaztagiria HAMABI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI EURO ETA LAUROGEITA HAMAIIKA ZENTIMOKoa (12.768,91 €) da, BEZa barne.

Bosgarren obra egiaztagiria BERREHUN ETA BERROGEITA ZAZPI MILA EHUN ETA HOGEITA ZORTZI EURO ETA BERROGEITA HAMABI ZENTIMOKoa (247.128,52 €) da, BEZa barne.

Seigarren obra egiaztagiria EHUN ETA HOGEITA BOST MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEI EURO ETA BERROGEITA ZORTZI ZENTIMOKoa (125.580,48 €) da, BEZa barne.

Lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak oniritzia eman die ziurtagiri hauei.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio gai honen inguruan abstenitzen jarraituko dutela, proiektuarekin ados ez daudelako.

Hau guztia kontuan izanda, Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 5 abstentziaz (EH Bildu), ziurtagiri hauek onartu ditu.

IV.- TAXIEN HIRI TARIFAK.-

Gipuzkoako Taxilarien Elkartek 2023 urterako hiri-tarifen proposamena bidali du Udal honetara. Datorren urterako % 10,3ko igoera proposatu du. Goierriko herri guztiatarako hiri-tarifa berdinak planteatzen dira.

Hiri-tarifen proposamen hau, Udalaren Osoko Bilkurak onartzea erabakiko balu behintzat, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamendura bidali behar da honek onar dezan, eta Goierriko Udaletako espediente guztiak GOIEKIren bidez izapidetu nahi dira.

Proposamenarekin batera auto-taxien ustiaketak dituen gastu eta sarreraren azterketa ere bidali dute.

Gaur egun indarrean dauden tarifak jarraian azaltzen direnak dira:

| HIRI - TARIFA (2022) | | | | | |
|----------------------|---------------------|---------------------|---------------|---------------------|---------------------|
| 1 TARIFA * | | | 2 TARIFA ** | | |
| Abiatze saria | Egindako kilometroa | Zain egindako ordua | Abiatze saria | Egindako kilometroa | Zain egindako ordua |
| 3,7433 | 1,1719 | 22,3832 | 3,7433 | 1,8690 | 35,1790 |

LAZKAOKO

UDALA 2023rako Gipuzkoako Taxilarien Elkartek proposatu dituen hiri-tarifak honako hauek dira:



| HIRI - TARIFA (2023) | | | | | |
|----------------------|---------------------|---------------------|---------------|---------------------|---------------------|
| 1 TARIFA * | | | 2 TARIFA ** | | |
| Abiatze saria | Egindako kilometroa | Zain egindako ordua | Abiatze saria | Egindako kilometroa | Zain egindako ordua |
| 4,1288 | 1,2926 | 24,6886 | 4,1288 | 2,0615 | 38,8025 |

* Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da

** Tarifa hau egun orotan 22:00etatik 7:00etara eta igande eta dagokion autonomi eta toki arautegietan finkatutako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara eta halaber larunbatetan eta abenduaren 24 eta 31n aplikatuko da.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du ez dutela baieztatu botorik emango forma arrazoiengatik, Gipuzkoako Taxilarien Elkarteak bidalitako euskarazko dokumentua oso trakets idatzi dagoela eta beraien kexua azaltzen dutela eta abstenitu egingo direla. Honez gain, gainontzeko zinegotziei ere abstenitzeko gonbitea egin die.

Alkateak GOIEKIri euskarazko dokumentuaren baldartasuna helarazteko konpromisoa hartu du. Abstentzioaren inguruan, taxilarien ogibidea ere badela eta ez zaiola proportzionala iruditzen esan du.

Hau guztia kontuan izanda, Udal Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 5 abstentzios (EH Bildu), honako erabaki hauek hartu ditu:

- 1.- 2023 urterako auto-taxi garraio zerbitzuetarako proposatu diren hiri-tarifak onartzea.
- 2.- GOIEKIri ahalmena ematea Lazkaoko Udalaren izenean espediente hau Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamenduaren aurrean izapidetu dezan.

V.- ITURGAITZAGAKO 4. E.L. (EMAITZAZKO LURSAILA) BESTERENTZEKO LIZITAZIO DEIALDIA ESLEITU GABE UZTEA.-

2022ko urriaren 27an egindako osoko bilkuran, Lazkaoko Udala eta Lazkao Lantzen S.A. ren jabetzakoa den Iturgaitzagako 4 E.L. emaitzazko lursaila besterentzeko kontratazio espedientea eta lizitazio deialdia egitea onartu zen bigarren aldiz.

Lizitazio deialdia kontratatzailearen profileen argitaratu eta proposamenak aurkezteko ezarritako epean ez da inolako proposamenik aurkeztu.

Hau honela izanik, Osoko Bilkurak, aho batez, Iturgaitzagako 4 E.L. emaitzazko lursaila besterentzeko lizitazio deialdia esleitu gabe uztea erabaki du berriz ere.

VI.- ABALAREN ITZULKETA (TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L., 2016KO KONTRATUA).-

2016ko otsailaren 23an, Osoko Bilkurak Lazkaoko kale garbiketa zerbitzuaren kontratua TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L. enpresari esleitu zion, eta beronek 68.000 €-ko abala aurkeztu zuen Udalean, zerbitzua zuzen eta behar bezala burutzeko berme gisa.

Kontratua eta, beraz, berme-epea amaiturik, TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L.k 2023ko urtarrilaren 11an Lazkaoko Udalaren erregistro elektronikoan sarrera eman dion eskaeraren aurrean, eta Udal teknikariak burutu duen txostenean oinarriturik, Osoko Bilkura honek aho batez 68.000 €-ko behin-betiko bermea deuseztatzea erabaki du.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko zazpiak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

